

Maitasunaren izenean

Lehenengo egunean, trago artean, lagun batek kontatu zidan zenbaitek seme-alabak telefono bitartez kontrolatzen dituztela. Monitorizaturik omen dauzkate eta, horrela, momentu oro badakite non dauden, gurasoak edonon daudela ere. Ez dakit ze puntutara arte heltzen den kontrol modu hori, suposatzen dut aplikazioaren araberrakoa dela, baina beste pertsona baten kokapena denbora osoan jakin nahi duenak, seguruenik, ez du enpatxurik izango pribatutasunaren muga guztiak gainditzeko.

Umeak babestu baino ez dutela nahi erantzungo lidake edonork. Baina benetan da zaila inor balizko arriskue-tatik "babestea", arrisku hori gertatzen den tokian ez bagaude. "Ea norbaitek eramaten dituen!", botako lidake beste batek, baina bien bitartean, errealtate zein probabilitateei muzin eginda, batiere kontu barik uzten ditugu osabaren, lehengusuaren, aititearen, baita aitaren eskutan ere. Normala, bestalde, beldurrez ezin baita bizi.

Baina kontrola ez da babesia.

Ba al dago mugarik giza eskubideetarako? Zenbat urterekin aitortzen zaio pertsona bati intimitaterako eskubidea?

Den-denok –salbuespen barik esan-go nuke– kasualitatez gaude bizirik. Seguru gogoratzen duzuela zuen bizitzak arriskuan egon diren edo jarri dituzuen momenturen bat. Den-denok kristorenak eta bi egin ditugulako txikitan –eta ez horren txikitan–. Eta momentu hori gogoratzen dugu, hain zuzen ere, ikaste prozesuan garrantzitsua izan zelako guretzat; bestela, ondo ahaztua izango genuke honezkero.

Zientzia aurrera egiten den bezala ikasten da bizitzen: saiakera-hutsegite bitartez. Eta saiakera-hutsegiteak nor-



Sonia González

IDAZLEA ETA ABAR

@sonetska

Kontrolak gauza bat eta bakarra adierazten du: menpekotasun harreman batean gaudela, berdin zein tokitan; menperatzaileak menperatuaren premia biziagoa baitauka, menperatuak menperatzailearena baino. Eta jokabideak dira ikasi eta errepikatzen direnak

berak egin behar ditu, ez beste inork. Helduok bizitzarako tresnak eman baino ezin dezakegu egin, pentsatzeko eta erabakitzeko tresnak, alegia. Eta otoitz egin baliagarriak izan daitezen eta momentu bakoitzean erabaki ego-kiak har ditzaten. Eta erabaki ona ez bada, hutsegite horretatik ikas dezate-la, hurrengorako. Hiltzen garen artean

etengabe egiten dugun legez.

Institutuan pando edo piper eginez gero, orain gurasoei egunean bertan jakinarazten omen zaie. Ez daitezen nerabeak ibili hortik zehar bizitzen ikasten, ez dezaten egin heldutasunera bidea. Gurasoen *whatsapp* talde-tik enteratu behar gara umeen ardura guztiez, azken detaillerrainoko guztia kontrolatu behar dugu, eta horrela umei galarazten diegu ardura horiek eurek hartzea. Umeek gure premia ba-daukate, jakina, baina askotan ematen du guk premia askoz handiagoa dauka-gula umeen menpekotasuna sentitze-ko.

Kontrola ez da babesia eta are gu-txiago maitasuna.

Kontrolak gauza bat eta bakarra adierazten du: menpekotasun harreman batean gaudela, berdin zein tokitan; menperatzaileak menperatuaren premia biziagoa baitauka, menperatuak menperatzailearena baino. Eta jokabideak dira ikasi eta errepikatzen direnak.

Nork azalduko die nerabeei ezin dituztela euren bikotekideen telefonoak eta mugimendu guztiak kontrolatu, momentura arte guk geuk gauza bera egin izan badiegu? Zelan azaldu maitasuna ez datzala horretan, guk geuk "maitasunaren izenean" egin badugu?

Morrontzan ari al gara pertsonak sortzen? Betirako beste inoren menpekoak izango direnak edo beste inor menperatu beharko dutenak? Zelan azalduko diegu neska-mutilei (batez ere neskei) independentzia dela euren altxorrik preziatuena, kosta ahala kosta defendatu behar dutena? Zelan azalduko diegu bestearen independentziak gu ere independente egiten gaituela? Areago, independentzia zer ote den ulertuko al dute, sekula horren jabe izan gabe? ■